

Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, Osoko Bilkura, 2021eko uztailaren 22an, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udaleko 2020ko Kontu Orokorra onartzea, Kontuen batzorde berezian diktaminatua 2021eko maiatzaren 25ean.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

2021eko maiatzaren 25an egindako Kontuen batzorde berezian, aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Ogasun Batzordeko idazkaria eta Kontu-hartzailea (Paskual Elustondo Darpon), ziurtatzen duenez:

“Lehena.- Onartzea Oñatiko Udaleko 2020ko Kontu Orokorrak.

Bigarrena.- Akordio horren jakinarazpena egitea interesatuei, dagozkien errekurtsuak azalduz.”

Oñatiko Udaleko 2020ko Kontu Orokorrak eta Kontuen batzorde bereziaren irizpen txostena jendaurrean jarri ziren 15 eguneko epean, bitarte horretan interesatuek erreklamazioak, zein oharrak aurkez ahal ditzaten. Hau guztia Gipuzkoako Erakunde Lokaletako Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 63. artikuluan xedatutakoarekin bat. Iragarkia 103. Zenbakidun duen 2021eko ekainaren 3ko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Paskual Elustondo Darpon jaunak, Ogasun Batzordeko idazkaria eta Kontu-hartzaileak, sinatutako 2021eko uztailaren 9ko agiriak dio, jendaurrean egon den epean, ez direla inolako erreklamaziorik jaso.

Gaia azterturik, eta Kontuen batzorde bereziaren aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Onartzea Oñatiko Udaleko 2020ko Kontu Orokorrak.

Bigarrena.- Akordio horren jakinarazpena egitea interesatuei, dagozkien errekurtsuak azalduz.


Hirugarrena.- Behar bezala onartutako kontu orokorra Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igortzea.

Gaia aztertuta, eta Kontuen batzorde bereziaren irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakunde Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut Oñatin 2021ko uztailaren 26an.

O.E.
ALKATEA



Izaro Elorza Arrégui

IDAZKARIA

Iñigo Roldan Catalan